

Fundición de Boluetako langileek bihar eta etzi greba egingo dute

Hitzarmena negoziatu nahi dute, baina enpresak Plana aurkeztu du

Boluetako burniolako langileek 1991ko hitzarmena negoziatzearren alde greba egingo dute bihar eta etzi. Bitartean, enpresak Plan Estrategikoa aurkeztu du. Bertan sistema produktiboak ajustatzeko beharra jasotzen da.

BILBO

Fundición de Boluetako langileen enpresa batzordeko iturriek adierazi zuten, lehenik eta behin aurtengo negoziazio kolektiboa sinatzea eskatzen dute, gero enpresak aurkeztu duen Plangintza estrategikoa aztertzeari ekiteko.

Enpresako zuzendaritzak hitzarmenaren negoziazioak bertan behera utzi zituen, langileek «plangintzan adostasunik lortzen ez diren puntuetan arbitraia onartu arte», enpresa batzordeko iturrien arabera.

ENPRESAREN PLAN ESTRATEGIKOA Langileek salatu dutenez, «enpresaren arazo tekniko eta antolaketa arlokoak ezagutzen ez dituztenek» burutu dute plangintza eta arazoa «deshumanizatu» dute, irtenbide «gogorak» propo-



Bilboko Fundiciones Bolueta lantegia.

J. SIMAL

satuz. S.A. Fundición Bolueta enpresako iturriek aditzera eman dutenez, plangintza estrategikoa «produktzio sistemen erabateko ajustearren beharra» jasotzen du, «konpetitibitate maila egokia lortu eta burniolaren etorkizuna bermatu ahal izateko». Plangintzak 26 lanpostu gutxitzea proposatzen du.

Deygesa sozietateak egin duen plangintzak «ezinbestekotzat» jotzen du konpetitibitate maila egokia izatera heltzea, «Estatu espainiarreko merkatu kuotak mantendu eta nazioarteko presentzia areagotzeko».


Plangintzaren helburua, 1990ean saldu ziren 5.734 tonatik 1994ean 6.200 tona saltzera pasatzea litzateke. Era berean iaz fakturatu ziren 1.639 milioi pezetatik (91,05 milioi libera) 1.913 milioi pezeta (106,27 milioi libera) fakturatzera iritsi nahi da hiru urteren buruan.

Produktzio sistemen berrikuntzan 360 milioi pezeta inbertituko dira hiru urtetan eta 26 enplegu kenduko dira. Zentzu honetan, «lanpostu murritzeta jubilatze aurreratuen eta antzerako neurrien bitartez» egingo dela ziurtatu dute enpresako iturriek.

BILBOKO BURTSA



ASTEKO BILAKAERA



Inbertsoreen ezkortasuna handituz

BILBO / IBON ALONSO

Aste honetan eta ostegunean izandako jaieguna zela eta lau ekitaldi izan dira Bilboko Burtan. Asteleheneko ekitaldian aurreko astean izandako galerak berreskuratu egin dira, indize orokorra 368,54 mailan finkatu da eta 3,73 puntuko irabazia gauzatu. Bankuen alorrak izan zuen gehikuntzarik nabariena, hain zuzen, 5,91 puntukoa. Beste alor guztiek emaitza positiboak izan zituzten, eraikuntzak ezik.

Kontratazio bolumenari dagokionez, maila baxuetan ezarri zen, hots, 700 milioitik behera. Merkatu jarraia, bere aldetik, irregulartasunean murgildu zen, eskari hautakor batek bultzatua. Lehen aipatutako irregulartasun horrek industria balioetan izan zuen indarra, eta alor berdineko enpresetan era ezberdinetakoa izan zen. Besteak beste, aipatu beharra dago Faes eskubideek 40 pezetako galera izan zutela.

Asteartean ere bezperako emaitza positibo bera izan zen Bilboko merkatuan, indize orokorra 371,18an kokatu zen eta 2,64 puntu irabazi zituen. Bigarren egun honetan Burtasak berreskurapen ildotik jarraitu bazuen ere, Londreseko Burtasaren maximo historikoa hemen somatu zen. Beste zioen artean, Banco de España Altxor letren enkantean izandako interes tasa aurki dezakegu. Portaera onenak bankoak eta elektriken alorrekin izan zituzten, eta hurrenez hurren, 3,25 eta 3,82 puntuko irabaziak lortu zituzten. Oraingoan Faes eskubideek 20 puntu gora egin zuten eta BNP balioek beste 10.

Industria arloko balioek portaera gorakorra izan zuten.

SOLTAXAGAREN IRAGARPENEN ERAGINA

Asteazkenean aurreko joera erabat puskatu zen Bilboko parketean: indize orokorra 2,62 puntu galdu eta 368,56 mailan finkatu zen. Soltaxa ministroak egindako iragarpenen ondorioz, aurreko egunetan bizi izandako baimenak lurrak jo zuen. Horrela, lehen lortutako mozkinak errealizatu ziren asteazkenean. Galeren artean aipatu BNP (-10), Cartinbao (-8), Intra (-5) eta Cartera Montañesa (-5) balioek pairatutakoak. Ordenadore bidezko kontratazioak ere joera beherakorra izan zuen, eta bankuen alorretako ia balio guztiek atzerapenak somatu zituzten.

Ostegunean jai izanda, ostiralean egin zen asteko laugarren ekitaldia Bilboko Burtan. Nahiz eta nazioarteko burtsek (batez ere New York eta Tokyon) berreskurapenak izan, hemengo burtasaren indize orokorra 368,02 mailan ezarri zen, 0,54 puntu galdutik. Altxor letren errentagarritasunaren gehikuntzak errenta aldatzeko merkatua kolpatu zuen. Negoziaketa ahalmen txikia eta gantioen irregulartasuna izan ziren ezaugarri nagusiak. Aseguruak, elikadura eta zerbitzu alorrak ezik, beste guztiek galerak izan zituzten. Faesek 10 puntu galdu zituen, Intra 5 eta Cartera Montañesa 3. Aipatu beharra dago Bodegas Bilbainasek izandako aldaketa: CVNEk egindako akzioak erosteko eskaintza publikoan (OPA) eskaintakoa baino 200 pezeta gehiagoan ezarri zen.

Ekologistek «ez nahikoa» deritzote 2000 arteko luzapen nuklearrari

DONOSTIA

Zenbait elkarte ekologistek Espainiako Gobernuak onartutako Energi Plangintza (PEN-91) kritikatu dute eta bertan aurikusitako 2000. urtea arteko luzapen nuklearra eta energi iturri berrerabilgarrien bultzada «ez nahikotzat» jo dituzte.

Greenpeace taldearen iritziz, PENek energi berrerabilgarriak (haize, eguzki energia, kogenerazioa eta abar) bultzatu beharko litzuzke gaur egungo iturrien aurrean, «energi hornidura nahikoa bermatzeko modu bakarra delako, etorkizuna mehatxatu nahi ez badugu».

Ildo beretik agertu dira Naturaren Defentsarako Ekologo Elkarte (ADENAT). Elkarte honentzat, Energi Plangintzak ez dakar inolako berrikuntzarik eta, gainera «berriro ere saiatu dira energi eskaintza eskariari egokitzen, azken hau gutxitu beharrean». Halere, ekologistek aitortu diote zenbait puntu positibo planintzari, hala nola, gas naturalaren erabilpenari eman nahi zaion bultzada.

BEDERATZI ZENTRAL NUKLEAR

Energia nuklearraren luzapena kritikatzeko dute batez ere ekologi taldeek, berau aski anbigua eta nahikoa ez dela argudiatuz. «Ez da nahikoa, ez duelako energia nuklearra bertan behera uzten eta martxan diren bederatzi zentralak funtziona-



Haize energiako helizea.

lari segituko dutelako, honek dakartzan segurtasun eta hondakin arazoekin».

Ekologisten ustez, jarraitu beharreko energi politikak elektrizitatearen kontsumoaren gutxitzea ekarri beharko luke, energiaren aprobe-

txamendua eta iturri berrerabilgarriak butzatzeaz gainera.

«Gure ustez, —gehitu dute— energia beharrezkoa den momentu eta lekuan erabili behar da eta gaur egun ia aprobetxatzen ez diren energietan inbertitu beharra dago».

Caja Vital Kutxaren TeleCaja **plus** Txartel berria.



Dena dauka.
Ba al duzu zuk?

Caja Vital Vital Kutxa

Araba eta Gasteizko Kutxa